



**Hiztegitxoa**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>ahantzita</b> ahaztuta	Ilunetan, ohea, eta barruen Mikel, ahuspez lo, hankak zabalik, <b>ahantzita</b> utziriko guraizeak bezain zabalik.	235
<b>aiene</b> intziria	Arnas estua eta <b>aienea</b> ohantzearen kirrin-karrankekin nahasten ziren logelako ilunpean.	231
<b>aise</b> erraz	Coca-Colari tragoa eman zion, baina burbuilak ez ziren eztarritik <b>aise</b> igarotzen.	253
<b>aje</b> biharamuna, mozkorraren ostea	...speedaren <b>ajea gauza</b> eskasa da.	89
<b>alabaina</b> hala ere	<b>Alabaina</b> , gorputza gauaren mende uztea erabaki zuen.	261
<b>alu</b> tentela, papaua	Agure <b>alua!</b> Ondoko txarteldegian eskatzeko. Lehenago ere esan zezakeen hori: zortzietan hamaiketarakoa.	257
<b>amaraun</b> aramu edo armiarma sarea	...ordura arte kontziente izan ez balitz bezala, Jokinen inguruko <b>amaraunak</b> josten hasi zen...	115
<b>amildegi</b> erroitza	...non eta ez dugun hutsune psikologikoaren <b>amildegia</b> zeharkatzen.	89
<b>amiñi</b> apurtxo bat	...gaur saldu egin naiz, <b>amiñi</b> bat baino ez bada ere saldu egin naiz.	70
<b>amultsu</b> maitakorra, maitasunezkoa	Pietateak irribarre <b>amultsuz</b> begiratu ziola uste izanik, are gorriago ipini zitzaion bisaia.	225
<b>antiparrak</b> betaurrekoak	...gizonezkoa bata (bizar eta ile luzeak, marko beltzezko <b>antiparra</b> galantak).	100
<b>apenas</b> gutxi, eskas	<b>Apenas</b> entzuten zen...	184
<b>apostolu</b> Ebanjelioa predikatzeko bidalia	Oteizaren <b>apostolua</b> baino zurrunago zegoen Mikel.	112
<b>arraio</b> demonstre	Eta orain zer? Zer <b>arraio</b> egin behar duk? Banku batean jesarrita, Camel kearekin olatuak sortuz so egin zion ingurune arrotzari.	255
<b>astun</b> pisuki	...lainoen biltzarra bailegoan, zerua <b>astun</b> zen Bilbo gainean.»	99
<b>atarte</b> ataria, ezkaratza	<b>Atartean</b> zegoela iruditu zitzaion...	171
<b>atximurkada</b> atximurra, piltzikada	Ordutik nabaritu zituen <b>atximurkada</b> txikiak bihotzean.	236
<b>atxur</b> mozkorra	...ikaragarrizko <b>atxurra</b> harrapatu nuela...	209
<b>atzoskol</b> azkazala	—Pasa kanuto hori, Txapli, <b>atzoskolak</b> erre behar dizkik bestela.	123
<b>aurrena</b> lehenengo	Nik <b>aurrena</b> ebaki bat.	220
<b>ausarki</b> kementsu, adorez	Honek ere <b>ausarki</b> desfiatzen zituen orekaren lege nagusiak.	7
<b>auskalo</b> batek daki, nork jakin	Ane beste babalore horrekin joan da eta <b>auskalo</b> zein toki idilikotan ariko diren txorta jotzen.	7
<b>babalore</b> ergela, leloa	Ane beste <b>babalore</b> horrekin joan da eta auskalo zein toki idilikotan ariko den txorta jotzen.	7
<b>bakan</b> arraroa, apurrak	Tabernan zeuden bezero <b>bakanek</b> ez zioten hirukote xebebreari begirik kentzen.	228
<b>baldar</b> traketsa, gustu bakoa	...argazki <b>baldar</b> bi. Elkarteko kidea Elkartaren egoitzaren aurrean bata, kalean jolasten ari ziren ijito birena bestea.	62



<b>bapo</b> oso ongi bete, ase	...eta zereginik ez daukatenak bakarrik geratzen dira, <b>bapo</b> , ohearen epeletik zereginduen munduak nola funtzionatzen duen imajinatzen.	59
<b>barre zantzotan</b> barre algarraka, lehertu beharrean	Barre <b>zantzotan</b> apurtu zuan Mikel.	131
<b>barreiatu</b> sakabanatu	Kafearen usaina etxe osoan <b>barreiatua</b> zen ordurako...	11
<b>behaztopatu</b> tupust egin, estrapezu egin	Argia iziotu zuen, bidean traba gehiagorekin ez <b>behaztopatzeko</b> .	10
<b>belu</b> berandu	Mikel barrura sartu zen, baina <b>belu</b> .	81
<b>beta</b> abagunea aukera	...Irunerako txartela erosi zuen geltokian. Zigarro mutur bat erretzeko <b>betarik</b> ez zuen izan Bilbotik irten zenetik.	254
<b>biao</b> bazkalondoko loaldia, siesta	Burt Lancasterrek eta bere kide mutuak ehun gizoni aurre egiten zieten bitartean, Dionisosek <b>biaoa</b> egin zuen.	155
<b>bisaia</b> aurpegia	<b>Bisaia</b> , ilaje eta bizar urdinduz estalia zuen hizlariak.	95
<b>bitzet</b> behar diot (bizk. <i>behar deutset</i> )	— Gero arte, Mikel, aiteri <b>tisanatxo</b> bat ipini bitzet-eta!	151
<b>burko</b> almohada	Mikel burua <b>burkoaren</b> pean eskutatzen saiatu arren, halakoetan ohikoa den une erabakigarrian zegoen.	107
<b>diosala</b> agurra, saludoa	Fariasa zeraman eskua jaso zuen <b>diosala</b> egiteko.	247
<b>ebakia</b> kafea esne apu batekin	Nik aurrena <b>ebaki</b> bat.	220
<b>egurats</b> atmosfera	Badirudi <b>eguratsa</b> bera ere garagardos eta speedez belarrietaraino bete dela...	10
<b>eite</b> itxura, irudia	...alegiatzko ama horrek <b>eite</b> ezberdinak hartzen ditu.	78
<b>emeki</b> astiro	Aneren gerrialdea ere <b>emeki</b> mugitzen hasi zen, Jonen aldean estilo handiz.	226
<b>eperdi</b> ipurdia, popa	Botilaren <b>eperdia</b> baino geratzen ez zenean laga zuen.	116
<b>erdietsi</b> lortu	Ate ertzak giltzaren harat-honatekin urratu ostean <b>erdietsi</b> zuen bere helburua.	8
<b>ergo</b> beraz, hortaz	Orain heldua zara eta ez gaztea, <b>ergo</b> , gauza batzuk den-orduko ezin dituzu egin, <i>capicce</i> ?	130
<b>ernatu</b> piztu, sortu	...denon fijazio bera zeukan ostera, hartu ezean berri garrantzitsu bat galtzearen sentazioa <b>ernatuko</b> zitzaiola barrenean.	107
<b>errainu</b> argi-izpiak	Telebistaren argi <b>errainuek</b> dir-dir egiten zuten egongelaren ilunean...	12
<b>erretolika</b> hizketa luze eta aspergarria	<b>Erretolika</b> bota eta behatzei hazka egiten ziela...	10
<b>esatari</b> berri emalea, aurkezlea	<b>Esatariaren</b> hitzak desfizatzen zituen Mikelek <i>retardando</i> efektu itogarri batekin.	238
<b>eskirol</b> greba saboteatzailea	Sabelak hustasun eta tristura mezuak bidaltzen zizkion burmuinera neurona <b>eskirolen</b> bitartez.	129
<b>eskutzar</b> esku handia, erraldoia	Txaplik <b>eskutzarra</b> pausatu zuen Pietatearen sorbaldan.	224
<b>estatus</b> maila, kategoria	Kale bereko hamahiruan latorrizko hodi zahar batek ur jauzi <b>estatusa</b> aldarrikatzen zuen jario batean.	149



<b>estolda</b> alkantarila, lurpeko kanala	Ur okadak <b>estolda</b> orotatik.	179
<b>ferekatu</b> laztandu	Mikelek larruazal guria <b>ferekatzen</b> zion, bularrak igurtzitzen.	232
<b>fitsik ulertu ez</b> izpirik ulertu ez, tutik ez	Mikelek <b>ez</b> zien jendarmeei <b>fitsik ulertu</b> , baina jakanarrua hartuta jalgi zen ohatzetik.	263
<b>ganorabako</b> lotsagabea, estilo gutxikoa	...atxur <b>ganorabako</b> bat...	200
<b>garaztatu</b> ureztatu	Askotan ez da konturatzen besteok ez ditugula berak adina ordu galdu intelektua <b>garaztatzen</b> ...	8
<b>gautu</b> ilundu	Trumoi hotsak esnatu zuenerako <b>gautua</b> zuen.	9
<b>gintzuazen</b> ginen (hika, bizk.), gintuan	... <b>umezurtz</b> geratu gintzuazen.	175
<b>gisan</b> erara, antzera	...animalien <b>gisan</b> ...	207
<b>godalet</b> edalontzia, basoa	Dionisos informatiboren bat ikusten ari zen, Ducadosa esku batean eta ardoz beteriko <b>godaleta</b> bestean.	153
<b>gomutak</b> oroitzapenak	<b>Gomutak</b> uxatzeko modurik arinena mozkortzea zela erabaki zuen.	139
<b>gomutura</b> gogora, akordura	San Juan de Luz izena etorri zitzaion <b>gomutura</b> ; halaxe esaten zitzaion bere etxean; gurasoekin izan zen behin unetan.	254
<b>hegi</b> ertza	Gaztea egongelako ate <b>hegiaren</b> kontra zegoen geldi-geldi, irribarre tonto bat ezpainetan.	116
<b>herabe</b> lotsatia	Pietateari mintzo zitzaion Ane, Mikeli begiratu arren, ihardetsi irrimarra <b>herabe</b> batez ihardetsi zion Txapliri.	224
<b>higuingarri</b> nazkagarria	<b>Higuingarria</b> da tabako beltza, baina besterik ezean Colacaoa erretzea baino hobea zen.	26
<b>hilurren</b> hil zorian	Kanpotik <b>hilurren</b> zegoen festaren hots urruna heltzen zitzaion, eta are urrunagotik, berriz ere trumoi hotsa.	9
<b>hordi</b> mozkorra	Mikelen irribarre <b>hordiak</b> ez zeukan berehalakoan jaramon egiteko asmorik.	118
<b>hozkirri</b> freskura, haize fina	Mikelek atetik <b>hozkirria</b> sentitu zuenean.	96
<b>hustasun</b> hutsa	Sabelak <b>hustasun</b> eta tristura mezuak bidaltzen zizkion burmuinera neurona eskirolen bitartez.	129
<b>idiliko</b> poetikoa, paradisiakoa	Ane beste babalore horrekin joan da eta auskalo zein toki <b>idilikotan</b> ariko den txorta jotzen.	7
<b>igurikatu</b> itxaron, espero	Itaunketa saihestezina <b>igurikatu</b> zuten azabatxezko begi maltzurrek.	223
<b>igurtzi</b> frotatu	Bi aldiz <b>igurtzi</b> zuen gorputza...	210
<b>ihardetsi</b> erantzun, arrapostu	Pietateari mintzo zitzaion Ane, Mikeli begiratu arren, <b>ihardetsi</b> irrimarra herabe batez ihardetsi zion Txapliri.	224
<b>irrimarra</b> barre keinua	Pietateari mintzo zitzaion Ane, Mikeli begiratu arren, ihardetsi <b>irrimarra</b> herabe batez ihardetsi zion Txapliri.	224
<b>istant</b> momentua, liparra, eretia	Ikaratu egin ziren biak <b>istant</b> batean.	212
<b>itaunketa</b> galdeketa	<b>Itaunketa</b> saihestezina igurikatu zuten azabatxezko bego maltzurrek.	223




<b>itogin</b> sabaitik tantatxoak, etxe barruan	Gizonak beste eskuaz besarkatu zuenean; negarrez hasteko gogoia etorri zitzaion bihotzean <b>itoginak</b> baliatu lez.	247
<b>itzartu</b> esnatu, iratzarri	<b>Itzartu</b> bezain laster egin beharreko lehen lana baitzuen Mikelek persiana jasotzarena.	77
<b>iziotu</b> piztu	Argia <b>iziotu</b> zuen, bidean traba gehiagorekin ez behaztopatzeko.	10
<b>jakablu</b> jaka	<b>Jakablu</b> barneko patrikan zeraman pisu dexenteko paketea...	115
<b>jakanarru</b> 'cazadora' larruzkoa	Bezperako arropak jantzi zituen: bakeroak, artilezko jertse beltza, <b>jakanarrua</b> eta Marteensak.	238
<b>jasotzeke</b> jaso edo altxatu gabe	Nerea gerri dantza harrigarriari jarraitzen zitzaion, oinak <b>jasotzeke</b> .	227
<b>jatun</b> tripandia, asko jaten duena	Zorionez, Dionisosek gustoko zuen kalabaza purea, <b>jatuna</b> izan ez arren bai baitzekien gauza onak estimatzen.	28
<b>jira</b> bira, itzulua	Berriro komunera buelta eta beste lerro bana <b>jira</b> .	127
<b>karrajo</b> korridorea, pasilloa	<b>Karrajoan</b> , galtzontzilotan, <i>homo sapiensa</i> baino bi eskail-maila beherago dagoen primatea zirudien.	150
<b>kaskezur</b> garezurra	Giroa astunegia zen <b>kaskezur</b> barruan, egun lainotu sargori batek baino sentimendu nagiagoa sortzen ziona.	129
<b>kinada</b> estimulua	...horretarako daude belarriak zerebroaren <b>kinaden</b> menpe, ezta?	92
<b>kirats</b> sunda txarra, hatsa	<b>Kiratsa</b> zerion Ibaizabali.	91
<b>kolko</b> aurreko goiko partea	Jertsearen <b>kolkotik</b> oratuz...	204
<b>kordel</b> lokarria	Ondoren <b>kordelak</b> askatu eta botak kendu.	173
<b>laga</b> utzi, abandonatu	Botilaren eperdia baino geratzen ez zenean <b>laga</b> zuen.	116
<b>lauso</b> gandua, difuminatua	...malenkonía <b>lauso</b> baten espresioa.	96
<b>libido</b> sexu-irrika	Enkontru hark <b>libidoa</b> piztu bide zion, eta orain libido hori askatzen baino ez zen ari.	152
<b>likits</b> zikina	Izugarrizko lepoko mina sumatzen zuen alde batetik, eta bestetik halako lakartasun <b>likits</b> bat izter bueltan.	13
<b>magalean</b> altzoan, sabel-hanka gainean	Sofan jarrita, egunkaria <b>magalean</b> ...	170
<b>mahasti</b> mahatsondo saila	...eta gure burua garaztatuta izatea beharko jok, <b>mahastiek</b> euria behar daben moduan.	41
<b>malenkonía</b> tristuraz oroitu	... <b>malenkonía</b> lauso baten espresioa baino ez zen, ezpainen ezkerraldean zen okerdura txiki batek ematen zion malenkonía lausoaren espresioa...	96
<b>mantso</b> astiro	Astelehena <b>mantso</b> jaiki zen...	187
<b>mar-mar</b> ahapeka aritu, maiseatu	...kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek ñir-ñir, eta mutxurdinek <b>mar-mar</b> ...	229
<b>mardul</b> lodia, astuna	...mahaiepeko aulki batean zeukan liburua luzatu zion. <b>Mardula</b> .	40
<b>martitzen</b> asteartea	<b>Martitzena</b> . Goizeko hamarrak. Kanpai hotsa San Antongo elizan.	77



<b>matrail</b> masaila, aurpegiko aldea bakoitz	...belarritako bana alde banatan eta <b>matrailetarainoko</b> patillak.	18
<b>mengel</b> eskasena, ahulena, hutsala	Horrelako kasuetan egin daitekeen gauzarik egokiena: telebista piztu!, ahalik eta programarik <b>mengelena</b> bilatzeko.	11
<b>milikatu</b> miazkatu	...txikiak, guriak, zuriak. Behin eta berriz <b>milikatu</b> zituen.	230
<b>mintzatu</b> hitz egin, berba egin, solastu	...ausardiaz <b>mintzaten</b> saiatzen.	210
<b>mintzo izan</b> hizketan aritu	Pietateari <b>mintzo</b> zitzaion Ane, Mikeli begiratu arren, ihardetsi irrimarra herabe batez ihardetsi zion Txapliri.	224
<b>morroi</b> tipoa, gizona	...bi <b>morroiak</b> ere Mikeli so geratu ziren.	221
<b>mukuru</b> goraino beterik	Han eta hemen liburuz <b>mukuru</b> ageri ziren apalategiei so zegoen Jokin...	8
<b>mutxurdin</b> neskazaharra, ezkongabe adinekoa	...kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek <b>ñir-ñir</b> , eta <b>mutxurdinek</b> mar-mar...	229
<b>nagi</b> alferkeria	Giroa astunegia zen kaskezur barruan, egun lainotu sargori batek baino sentimendu <b>nagiagoa</b> sortzen ziona.	129
<b>najagok</b> nago (hika) niagok	Gaur baikor <b>najagok</b> eta holakoetan edonorekin konpontzen nok.	123
<b>nardagarri</b> nazkagarria	...artaburu <b>nardagarri</b> hark kazetaritza popularrari buruzko lezio bat eman berri zion.	67
<b>non eta ez dugun</b> ez baldin badugu	... <b>non eta ez dugun</b> hutsune psikologikoaren amildegia zeharkatzen.	89
<b>ñimiño</b> txiki-txikia	...langile <b>ñimiñoek</b> matxinadarako deia...	213
<b>ñir-ñir</b> diz-diz, distira egin	...kalean hotza, zerua oskarbi, izarrek <b>ñir-ñir</b> , eta mutxurdinek mar-mar.	229
<b>oinaze</b> mina, sufrimendua	Ez zuen aski bere buruarekin eta orain Dionisosekiko kezka, eta lotsa, eta <b>oinazea</b> .	260
<b>okada</b> botalarria	Ur <b>okadak</b> estolda orotatik.	179
<b>oldartu</b> eraso egin	Uniformez jantzitako tipo bat <b>oldartu</b> zitzaion. Begiak plater azalak bailiran zabaldu zitzaizkion Mikeli, eta intxaurra eztarrian gora trabatu.	257
<b>oparo</b> ugaria, betea	...gosari <b>oparo</b> batekin ospatuko zuen patrika gizendu ostean.	108
<b>oratu</b> heldu, hartu	Jertsearen kolkotik <b>oratus</b> ...	204
<b>parean</b> ondoan, alboan	...leiho <b>parean</b> zutik...	205
<b>patrika</b> sakela, poltsikoa	Jakablu barneko <b>patrikan</b> zeraman pisu dexenteko paketea.	115
<b>piura</b> itxura	Hantxe geratu zen bere <b>piura</b> berriari so, arropa epelak bere onera bueltatzen zuen bitartean.	245
<b>prediku</b> sermoia	...eta ikaragarritzko <b>predikuak</b> jasan behar izaten ditut.	8
<b>sekula</b> inoiz ez, egundo	...nik ez zaitut <b>sekula</b> ikusi.	210
<b>sufritu</b> pairatu	Mikelen bihotzak eguneko hirugarren geldialdia <b>sufritu</b> zuen, eta irudito zitzaion ez zela eguneko azkena izango.	239





<b>supituki</b> bat-batean	San Frantziskorantz Zabalburuko lurpeko pasabidean barrena lerratzean entzun zuen <b>supituki</b> ahots bat gibelean.	111
<b>tisana</b> infusioa	— Gero arte, Mikel, aiteri <b>tisanatxo</b> bat ipini bitzet-eta!	151
<b>tramankulu</b> makina, trastea	...puntu egokia jarri zion bere <b>tramankuluari</b> .	217
<b>txepel</b> koldarra, kakatia	Maitemina esaten omen zaio horri. Eta deskribapenak kursileria <b>txepel</b> bat dela irudi lezakeen aarren, ederra da maitemina.	236
<b>txima</b> ile luzea, adats puskak	...sorbaldetaraino heltzen zaion <b>txima</b> luzea motots batean lotuta...	18
<b>txokor</b> purua, zigarro handia	Ondoko bibotedunak <b>txokorra</b> lurrean amatatu zuen zapatarekin, eta aurrera abiatu zen.	134
<b>txoriño</b> txori txikia	<b>Txoriñoaren</b> alardeari une batez begira egon ondoren jaiki zen, pertsianak jaso eta leihoa ireki.	236
<b>ukapen</b> debekua	Plazerraren <b>ukapena</b> .	214
<b>umel</b> bustita	...gauaren aurrean babesik gabe zegoen elementu oro (etxeak, autoak, pertsonak, txakurrak) freskura <b>umelezko</b> izara batek estaltzen zuen.	93
<b>umezurtz</b> guraso gabe	... <b>umezurtz</b> geratu gintzuzen.	175
<b>upaka</b> zurrupatzen, ahokadak hartzen	Bere aldameneko gizona ere geldi, txokorrari <b>upaka</b> .	134
<b>urratu</b> arraskatu, zartatu, hondatu	Ate ertzak giltzaren harat-honatarekin <b>urratu</b> ostean erdietsi zuen bere helburua.	8
<b>urtemuga</b> urtebetetzea	...urtero ipintzen zion bere <b>urtemuga</b> egunean.	170
<b>xelebre</b> bitxia, barregarria	Tipo <b>xelebre</b> hark Parisen izandako bizitza kontatu zion, nola erakusketa bat egin zuen taberna progre batean, nola lanak eskuetatik kendu zizkieten...	271
<b>zaparro</b> lodikotea eta txiki samarra	— Gabon, <b>zaparro</b> . Ondo joan dok estrenaldia?	56
<b>zarra-zarra</b> euriaren onomatopeia	<b>Zarra-zarra</b> ari zuen euria arratsaldeko hiruretan...	149
<b>zarrasta</b> tarratada	...ikaragarritzko <b>zarrasta</b> hotsa ateratzen ei zuten lurrera iristea...	15
<b>zartatu</b> arrakalatu, pitzatu, apurtu	Zerua <b>zartatzen</b> ari zela zirudien.	9
<b>zemaika</b> mehatxu keinua	Anek <b>zemaika</b> begiratu zion arte.	138
<b>zipaio</b> polizia (mesprexuz)	— Zenbat <b>zipaio</b> ! Trenetik nentorrela ikusi ditut beste furgona pare bat.	158
<b>zira</b> txubaskeroa	...kendu egin <b>zira</b> barregarri hori eta jarri hadi bazkaltzera, gauzatxo bat komentatu behar deuat-eta.	39
<b>zirkinik ez egin</b> mugimendu txikienik ere ez egin	<b>Ez zuen zirkinik egin</b> hara sartu zenetik. Bostehun arte zenbatu, komuneko tapa itxi eta bertan jarri zen.	256
<b>zirrara</b> emozioa	<b>Zirrara</b> ezti bat sentitu zuen...	213
<b>zirrika</b> laztan lizunak egiten	Arenalean geroz eta bikote gutxiago ikusten dira gaez bankuetan <b>zirrika</b> .	27
<b>zurtuta</b> harrituta	...barreka hasi zen Dionisos. Mikel <b>zurtuta</b> zegoen...	95